

GELTOKIAN

GELTOKIAN

Argi-seinaleak trena ailegatzeko bost minutu falta direla adierazi duen unean ailegatu da ondorio bitxi horretara. Orduantxe ikusi du argi bere pentsamenduak sasoian entzuten duen musikaren arabera sortu eta garatzen direla. Erritmo jakin bat jarraitzen dute, pasarte luze eta korapilatsuetatik irudi labur eta errepikakorretara; halako kutsu jakin bat. Esaterako, *Moonchild* taldearen jazz-metala entzuten dabilen sasoi honetan hotzagoa, izoztuagoa, iruditzen zaio dena; agian horregatik du gogoia, azken boladan, etxean lasai egoteko, lasai eta bakarrik. Duela bi hilabete-edo, ostera, esango luke bestelakoa zela kontua: raparekin ideia piloa nabaritzen zituen buruan bueltaka, etorri handiko erreka bat bere baitan; dena arinegi eta pilatuta, arrastiko kafe ostean edo komuneko lehenengo sartu-irtena egin eta garagardoa eskuan egiten direneko jendarteko hizketaldietan bezala.

Kontua lagunaren batekin komentatu behar duela pentsatu du. Bitxia ere bada; izan ere, zer gertatuko litzaioke musika klasikoa entzunez gero, edo Mikel Laboa egunero, edo esaterako ondoko neskatila biek ziurrenean entzuten duten Bisbal eta OTko horiek guztiak entzuten arituko balitz. Zein litzateke bere baitako erritmoa? Edo, bestela, andeneko beste aukian eserita daudenek entzuten dutena izanez gero. Esaterako, gorbatadunak; musika gustuko badu, noski; baliteke irratian futbolarekin nahikoa izatea. Ziurrenean, aldamenean duen andreak bezala, *rantxerak* entzungo dituzte biek ere, gaztaroan entzuten zituzten berberak. Egon daiteke berrogeitaka urte musika berdina entzun eta erritmo berean pentsatuz. Horrela ote da? Zutik dagoen neskak, ostera, rocka entzungo duela egingo luke apustu. Jantzkeragatik gutxienez hala ematen du; bere poema liburuarekin. Ziur Patty Smith gustuko duela.

Eta egia dela konturatu da berriro: oraintxe ere pentsamenduen erritmoa *Calígula* abestiaren arabera doakiola, oso sinkopatuta. Gizon gorbatadunarenera lehenengo; gero, neska hauek, eta salto bestearen liburura, berriro pija bikote hau, eta andrea, eta gorbatadunaren poltsa, eta Patty Smith...

Lau minutu trena ailegatzeko, baina txarto dago; atzeratu egin zaie geltokiko erlojua. Izan ere, berea beti dator bat irratiko partearekin. Baliteke gaur kolpetxoren bat eman eta atzeratu izana, baina ez du uste; lehengo erloju hauek gaur eguneko moderno-plastikozkoak baino gogorragoak dira. Eta orain etxera, arrastia ondo aprobetxatu ostean. Uste du Bilbon arrasti batek gehiago ematen duela emazte barik ibiliz gero; gaur esaterako: hiru-lau trago Ledesman; gero, Joserengana joan, Corte Inglesera. Han, erdi-ezkutuan edukitzen duen petakatik whiskya edanda polito ipini dira. Baliteke orduantxe eman izana kolperen bat erlojuari apalategiren batekin. Sano baldar paratu dira egia esan. Han utzi du Jose, bikote bat etorri denean, bidaia-maletengatik galdetzera; berba egitea ere kostatu egiten zitzaion, trabatu egiten zen maleta bakoitzaren neurri eta abantailak azaltzen zebilela.

Txarrena da azkenean ez duela lanparatxoa itzuli. Zertan pasatu duzu ba, arrasti osoa Bilbon? Jakin liteke, Manu? Horixe etxera ailegatzean entzungo duen lehen gauza. Egia esan, arrasti osoa darama fardelarekin besapean, eskerrak ez duela tabernaren baten ahaztuta utzi. Orduan komeriak. Berriro tabernetara itzuli behar: barkatu, uste dut hemen utzi dudala, ahaztuta, plastikozko poltsa berde bat. Ikusi duzue? Lanparatxo bat zegoen bertan, itzultzekoa zen; badakizu, dendan gauza bat dirudi eta gero salako armairuaren ondoan ez da gauza bera. Ez? Ez da agertu; beno, atera egidazu kiantzatxo bat orduan.

Eta orain betikoa: haserrea, isiluneak, etc. Zer edo zer oparitu beharko dio lan ostean geratzen den hurrengo arrastian. Bitxiren bat edo. Esaterako, ipurdi polita duen neska horrek daraman antzeko lepokoa. Anbarrezko horrelako bat, barruan zomorro eta guzti. Polita iruditzen zaio, garestitxoa aukeran; horrez gain, zalantzan dago gustatuko ote zaion. Ez du uste. Eulitxo bat. Gainera, ez du konponduko ezer. Jada zer konponduko du, bada!?

Hiru minutu falta dira kartelak dioenez, eta hiru dira, hain zuzen ere, buruan dituen gurariak. Ezin da liburuan kontzentratu, orain ere pentsatzen dihardu zer egingo lukeen hiru

dohainak emateko ahalmena duen jeinua agertuko balitzaio. Azkenaldian, denboran atzerantz egin ahal izateko ideia datorkio batez ere; eta ez du uste onenak emanda dagoelako denik. Hogeita hamar urteak beteak dituelako ez da izango! Eta medusen amets errepikatu horiek. Medusa oso argiak, ia zuriak ur ilunetan ezerezetik bezala agertzen direnak, saldoka. Zer edo zer esan gura ote dute? Ametsen esanahian ere pentsatzen hasita dago, zerbaitengan sinetsi besterik ez duelako jada.

Beharizan hori dauka Anek uneotan; duela urte bat gutxi gorabehera, baten batek ataka honetan izango litzatekeela esanez gero ez lioke ulertuko, dena argi eta garbi ikusten zuen artean: etxea, lana, bikotea... Jode, bikotea! Nork esango luke seme-alaben kontua gero eta sarriagotan agertuta zegoenean gainera. Orain, berriz, gogorra egiten da ikustea bizitza osorako kide uste zenuen hori ez dela zirudiena bezalakoa. Hasierako beroaldi, argi eta musikaz beterikoa amaituta helduaroko fase egonkorren zantzuak zirelakoan; monotonia maila baten ulertzekoa. Baina ez. Eta konturatu orduko, inoiz ulertu ez dizun arrotz batekin bizi zarelako uste osoa. Gure egunerokoan ez dago tartekorik; oihuka ala isilik ematen ditugu etxean batera gaudeneko orduak.

Eta argirik ez tunel horretan, ez badira betiko lagunak. Entzutearen trukean inoiz ezer eskatu ez, eta beti hor izango direnak. Badakizu, galtzaileak beti ditu lagun gutxi baina onak. Urteko *mambo* gau onenerako prest, eta handik ordu laurdenera autoan etxera eroaten zaituztenak galderarik egin barik. Joseba, esaterako. Beti hortxe dago, entzuteko, batez ere entzuteko prest; medusen amets horiekin hasi nintzenean, esaterako. Polonian egon denean ere Imanol baino hurbilago sentitu dut: bere postala, lerro arteko animo mezuarekin. Eta egindako oparia, zintzilik daramat egunotan; konturatu ere ez da egin bestea. Ez du galdetu ere Michel Saulaieren antologia elebidun hau nondik lortu dudan.

Trena minutu bi barru etorriko da, eta Marta Nereari atzo entzundako gauza bat kontatzen dabil. Sarak esan dionez, Martinekin irteteari utziko dio ez zaiolako bere jokaera gustatzen. Badakizu, betikoa: bere lagunen aurrean existituko ez balitz bezala jokatzeko du; eta gero, berarekin bakarrean, ea zer gertatzen zaion eta hori guztiori. Martak dioen lez, bera izango balitz, aspaldi bidaliko luke txakurrak puztera, aspaldi esango litzioke entzun behar zituenak eta ez zituenak.

Bada ze, mutil guztiak berdinak direla erantzun dio Nereak, musika heavya entzuten, gogor plantak eginez, eta gero beste gauza batzuetarako inor baino umeagoak. Jo, eske batzuetan lelo aurpegiarekin geratzen zaizkizu, isilik; eta zer gertatzen zaien galdetuz gero, "ezer ez" erantzuten dizute. Eman izan ditu Martak, inoiz, hogeitaz minutu Ekaitzekin, taberna baten, mahaian eserita bakoitza bere kalimotxoarekin, isilik eta tipoa lasai; bazirudien berari barik musikari egiten ziola jaramon gehiago. Ia tripak lehertzen zaizkio egun horretan.

Eta Martak atzo telebistan ikusi zuena? Gizon batek neska bati bere bikote izaten jarraitzeko eskatzen zion. Eta neskak, hantxe, denen aurrean, ezetz eta beretaz ahazteko ez dio esan ba! Pentsatzen zuen programa horiek guztiak konponduta zeudela eta dena polit-polito amaitzen zela, bai zera! Bada, horixe bera esango lioke berak Martini Sara izango balitz. Gainera, klase guztiaren aurrean esan ere, denak konturatzeko moduan. Une aproposena itxoingo luke, Inguruneko ordua edo. Maiderekin sartzen den unea ez litzateke batere txarra izango. Bide batez, zein ariketa agindu zuen Maiderekin biharko?...

Minutu bat trena etortzeko eta neskato biak zutitu egin dira. Gizonak plastikozko poltsa jaso du lurretik. Gemak, osterak, eserita geratuko dela erabaki du. Hurrengo hartuko du, konturatu baita egun osoa zutik pasatu eta lehen aldiz daramatzala bost minutu eserita. Ostegunak dira astegunik gogorrenak: orduantxe ditu banketxe-bulego gehien garbitzeko. Batetik bestera ematen du egun osoa. Beraz, atseden unea luzatzea erabaki du. Astia dauka gero ere erosketa batzuk egiteko eta afaritarakoa berotzeko.

Gustura ibiltzen da lanean; batez ere, ez duelako nagusirik ia ikusi behar. Gorbatadun horietariko bat bulegoan lanorduz kanpo geratzen den bakoitzean deseroso aurkitzen da. Hilabete onenak gutunazala jasotzeko besterik ikusten ez dituenak dira; aldaketaxoren bat edo beste zerbait badago komentatu eta hurrengo hilera arte lasai-lasai bere erritmoan bulegoak garbitu eta kito.

Eserita dagoela hankak gero eta sarriagotan handitzen zaizkiola pentsatzen hasi da. Laster izango da, bada, "jubilatze" sasoia. Orduan bai. Orduan bai aterako duela astia, etxeko lanak egin ostean, kalerik kale paseatzeko eta zabalguneean zeruari begira geratzeko. Txikitatik gustatu izan zaio lainoei parekotasunak antzematea. Geltokian bertan ere aritzen da, tren aitorri bitartean, zirrikituetakoz gerizpe eta hezetan zantzueta formak aurkitzen: etzandako dragoi berdexka hori esaterako, edo horko beste itsasontzia...

Metroa tuneletik agertzen hasi denerako denak daude zutik, euren etxetara ahalik eta lasterren ailegatzeko gogoz; denak Gema izan ezik. Bera bakarrik konturatu da alboko aulkian zegoen mutila larregi hurbildu dela andeneko ertzerara. Zapatilen puntak airean dituela antzeman du, eta burumakur dagoela trenbideari begira. Gema izan da haren jauzia ikusi duen bakarra, neskak liburua poltsan sartu duen unean, ondoko gizona erlojuari begira dagoen momentuan bertan; gazte biak elkarrekin barrezka dabilzanean.

Gema izan da lehena oihukatzen. Andenean dauden denak begiratu diote eskuekin garrasia ito gura duen emakumeari. Gero, denen begiak zuzendu dira hark seinatzen duen lekurantz. Momentu horretan ez dago inor andenaren ertzean, hutsuneak erakutsi du argi dagoela dena. Trena euren aurretik pasatu den segundo horretan amaitu da Moonchilden 616, kaskoak apurtu baino doi-doi lehenago; poltsa barruan dagoen lanparatxoa lurraren kontra kraskatu da, eta oihu melodiko samarra egin dute bi nesken ahotsek, entseatuta baleukate bezala. Aneren ordean, Baltiko hotzean milaka urte gelditu eman dituen idunekoko euliak itxi ditu begiak, bere hankatxoekin, horrela zer edo zer konponduko ahal izango balu bezala.

Trena berriro martxan jarri denean ez dago inor andenean. Ezta eserita geratuko zela ematen zuen andrea ere, azken orduan altxatu eta joan egin da besteekin batera; bakoitza bere etxera edo gustuko duen txokora, maite duen jendearen aldamenera. Geltoki hutsari darion gristasunak hitz egin dezakeela dirudi; propaganda argitsuaren kolore biziak bestelako bakarrizketa baten pausaguneak baino ez dira.

Hurrengo trena hogeita bost minutu barru dator, ostekoa 40 minutura. Horixe dio seinaleak, eta oraindik ez da inor inguratu andenera. Mutil bat bakarrik dago eserita, musika entzuten eta hutsik geratu den metro geltokiari begira. Bere begiradarekin isiltasuna nondik nora mugitzen ari den jarraitzen du, pentsatzen duelarik gero eta argiago daukala zer-nolako erritmoaren arabera mugitzen diren bere ideiak.